

XXI. Jagon jardunaldia: “Ipar Euskal Herriko Elkargoaren sorrera eta euskararen etorkizuna”

Baionan, 2016ko azaroaren 19an

Kronika

2006an, Ipar Euskal Herrian egituratzen hasi zen politika publikoa. Halarik ere, euskal hiztunen kopurua eta euskararen erabilera ttipitzen ari dira; argi dago, beraz, orain arte eginikoa ez dela nahikoa. Beraz, etorkizunean egin beharrekoa da garrantzitsua, eta horri erreparatuko zion azaroaren 19an izan zen Jagon jardunaldiak. 2017ko urtarriletik goiti, Euskal Elkargoaren sortzearekin batera, hizkuntza politika berri hori garatzen hasteko garai egokia izango da, eta bide horretatik doa Euskaltzaindiaren eta Euskal Konfederazioaren gonbita: Jagon jardunaldi berriak hainbat gizarte eragile eta erakundetako kideak batu eta beraiei eman zien hitza, datozen urteak nola irudikatzen dituzten eta erronka berrien aurrean nola jokatu behar den ager zezaten.

Horretarako, programa zabala atondu zen. Goizean, egungo euskararen egoeraren irakurketa proposatu zen. Jardunaldia, Battittu Coyos Jagon sailburuaren eta Mainer Hegiren (Euskal Konfederazioa) sarrera-hitzaldiekin hasi zen. Ondoren, Argitxu Etxandik (Kontseilua) ‘Euskararen estatusa. Legezko koadroa eta aukerak’ berbaldia eman zuen, eta 11:00etan hizkuntza politikaren erronkak aztertu ziren mahai-inguru batean. Arratsaldean jarraipena izan zuen goizeko mahai-inguruak, baina gonbidatu desberdinekin. Azkenik, erakunde publikoei zuzendutako aldarrikapen testua irakurri zuten Xarles Videgain euskaltzainak eta Euskal Konfederazioko Mainer Hegik. Sortzen den mementotik beretik hasita, Elkargoaren estatutuetan euskararen hizkuntza eskumena jaso behar dela esan zuten erakunde biek, Korsikan, Britainian eta Ipar Katalunian egin bezala, Ipar Euskal Herrian ere euskarari “nolabaiteko izaera ofiziala” aitortu behar zaiola azpimarratuz. Horretarako, gogoratu zuten ezinbestekoa dela “baliabide aski paratzea eta hizkuntza politikarako aurrekontu propioa bideratzea”. Norabide berean, Ipar Euskal Herriko erakundeentzat Euskaltzaindia aholku emaile ofiziala eta hizkuntza kontuetan erreferentziazkoa izatea eskatu zieten Akademiak Garapen Kontseiluari eta Euskararen Erakunde Publikoari. Nafarroan eta Euskal Autonomia Erkidegoan aholku emaile ofiziala da Euskaltzaindia, eta, ondorioz eta euskarari dagozkionetan, herri-erakundeek irizpenak, aholkuak eta txostenak eskatzen dizkiote.

Ipar Euskal Herriko hirigune elkargo bakarria sortzeko prozesua abiatu zenetik, edozenbat izen erabili dira egitura berria izendatzeko. Hori horrela, Euskaltzaindiak eta Euskal Konfederazioak *Euskal Elkargoa* hobetsi dute egituraren izen ofizial gisa.

Jende ugari hurbildu zen goizeko zein arratsalde parteko hitzaldietara, Euskal Museoko gela nagusia euskaltzalez gainezka agertu zelarik.